



## GOBERNU BATZARRA

2025.03.25

**Alkatea:**  
**Angel Martinez de Rituerto Arregi**

**Bertaratutako zinegotziak:**  
**Kristina Pelaez Errazkin**  
**Ander Figuerido Zubiria**

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko martxoaren hogeita bostean, 10:00etan, bigarrenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

**Ez dira bertaratu:**  
**Aitor Agirresarobe Murgi**  
**Estitxu Kortejarena Ugarte**  
**Goiuri Ezeiza Arandia**

1. Akta hau onartzea: 2025eko martxoaren 18koa.

2. Onartzea Tolosako udaleko lanpostuen balorazioa berrikusteko 2025 urteko plangintza.

**Idazkari akzidentala:**  
**Francisco Javier Araniguría Rodrigo**

3. Onartzea TAO kontratua betetzeari buruzko proposamena eta behin betiko bermea Gertek SA enpresari itzultzea.

**Kontu-hartzaile akzidentala:**  
**Paulino Alonso Eraso**

4. Dekretu hauen berri ematea:

2025/772 Dekretua: 2025/4 faktura zerrendak.

2025/780 Dekretua: 2025/5 faktura zerrendak.

### **1. AKTA HAU ONARTZEA: 2025EKO MARTXOAREN 18KOA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute.

Aho batez onartu dute.



## **2. ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO LANPOSTUEN BALORAZIOA BERRIKUSTEKO 2025 URTEKO PLANGINTZA.**

### **AURREKARIAK**

**Lehena.-** Tolosako udalbatzak 2022ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, lanpostuen katalogoa, balorazioa, sailen organigrama eta Lanpostu zerrenda behin-betiko izaeraz onartu zuen.

Hori horrela, udalbatza osoak, berrikuspen araudiari dagokionean, honakoa onartu zuen:

*“**BOSGARRENA.-** Lanpostuen Balorazioko berrikuspena arautuko duen Erregelamenduaren onarpena atzeratzea, araudia lantzen eta negoziatzen den bitartean.”*

**Bigarrena.-** Tolosako udalbatzak 2024ko abenduaren 23an lanpostuen balorazioa berrikusteko araudia hasierako izaeraz onartu zuen. Behin hasierako onarpen hori jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia eman ondoren, ez dira erreklamazioak aurkeztu, hortaz behin-betiko izaeraz onartutzat ematen da.

**Hirugarrena.-** Araudian zortzigarren puntuan adierazten den moduan, urtero udal gobernuak plangintza bat egingo du eta bertan, berrikusiko diren lanpostuen zerrenda eta kronograma bat onartuko du, zehaztuaz baloratuko diren eta errebisatuko diren lanpostuak.

Honela, Giza Baliabide sailak 2025 urterako plangintza proposamen bat aurkeztu du eta hau zerbitziburuei helarazi zaie, 15 lan egunez iradokizunak egin ditzan; epe honetan, bost proposamen aurkeztu dira (Musika eskola, txistulariak, kirolak, euskara eta udaltzaingoarenak hain zuen ere). Behin proposamen hauek aztertu ondoren, Ofizial ordearen plaza ofiziozko berrikuspenean sartzeari proposatu da eta Diruzainarena aurrerago berrikustea.

Era berean, plangintza hau ordezkari sindikalekin negoziatu da eta ADOS agertu dira proposamenarekin.

**Laugarrena.-** Lanpostuen berrikuspenak edo lanpostu berrien balorazio prozedurak bi bide ezberdinetatik bultzatu ahal izango da:

- Lehena, **ofiziozko berrikuspena**; honetan bi prozedura erabiliko dira:
  - a) Ohiko prozedura: Udalak sustaturiko prozesuaren barruan, lanpostuen balorazioa berrikusteko onartutako plangintzaren arabera garatuko dena.



- b) Ezohiko prozedura: lanpostu baten funtzioak modu kualitatiboan aldatzen direnean, (berrantolaketa bat egin delako, betebeharrak berriak sortu direlako, etab.) edo indarrean dagoen balorazioan akats edo hutsune nabarmenak ikusten direnean.
- Bigarrena, **interesatuak** berriz aztertzeko eskaturiko prozedura: honetan, udalak maiatzeko hilabetean epe bat irekiko duten interesatuak, ahal nahi izan ezker, dagokien eskaera aurkez dezaten.

### ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikulua k) atalean xedaturikoaren arabera, funtzionarioen ordainsariei eta bere lan baldintzei dagozkien gaiak pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, plangintza hau 2025eko otsailaren 18an eta 2025eko martxoaren 18an, ordezkari sindikalekin negoziatu zen eta ados agertu ziren.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### ERABAKI DU

**Lehenik.**- Tolosako udaleko lanpostuen balorazioa berrikusteko 2025 urteko plangintza onartzea, txosten honen eranskin gisa doana.

**Bigarrenik.**- Balorazio batzorde mistoa eratutzat ematea, ondorengo Udal Gobernuaren kideekin:

1. – Andu Martinez de Rituerto, Alkatea.
  - Josune Sanz Vidal, giza baliabideetako zinegotzia.
  - Kristina Pelaez Errazkin, antolakuntzako zinegotzia.
  - Ander Figuerido Zubiria, Hirigintzako zinegotzia.



2. Ordezkarik sindikaleko kideak ordezkaritza horrek proposatuko ditu, eta proposamen hori Alkatetza Dekretuaren bidez onartuko da.

**Hirugarrenik.-** Akordio hau ordezkarik sindikalei jakinaraztea.

**3. ONARTZEA TAO KONTRATUA BETETZEARI BURUZKO PROPOSAMENA ETA BEHIN BETIKO BERMEA GERTEK SA ENPRESARI ITZULTZEA.**

**Behin betiko bermea itzultzeko kontratua betetzeari buruzko proposamena.**

**Propuesta de cumplimiento de contrato para la devolución de la garantía definitiva.**

**IKUSIRIK**

**VISTO**

LEHENA.- 2024ko irailaren 6an formalizatu zen aipatutako kontratua.

PRIMERO.- El día 6 de septiembre de 2021 se formalizó el contrato de referencia.

BIGARRENA.- Adjudikaziodunak jarritako behin betiko bermearen zenbatekoa 22.401,86 eurokoa izan zen.

SEGUNDO.- El importe de la garantía definitiva depositado por la adjudicataria fue de 22.401,86 euros.

**KONTUAN**

**HARTURIK**

**CONSIDERANDO**

LEHENA.- Aipatutako espedienteari dagokionez, non, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 107. artikuluan xedatutakoaren arabera, aipatutako zenbatekoko behin betiko bermea ezartzen zen, eta kontratu horren berme-epea mugaegunera iritsi denez.

PRIMERO.- En relación con el expediente de referencia, en el que de conformidad con lo dispuesto en el artículo 107 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, se establecía la prestación de garantía definitiva por el importe citado, habiendo llegado a su vencimiento el periodo de garantía del citado contrato.

BIGARRENA.- Adjudikaziodunak kontratua behar bezala bete duela, eta administrazio baldintza partikularren pleguan eta preskripzio tekniko partikularren pleguan ezarritako baldintza guztiak bete dituela, eta, beraz, adierazitako kontratua erabat bete dela. Era berean, ezarritako berme-epea amaitu da.

SEGUNDO.- Que el contrato ha sido ejecutado satisfactoriamente por parte del adjudicatario habiendo cumplido todos los requisitos establecidos tanto en el pliego de cláusulas administrativas particulares, como en el pliego de prescripciones técnicas particulares y que, por tanto, se ha dado pleno cumplimiento al contrato indicado. Asimismo, se ha producido el vencimiento del plazo de garantía establecido.



Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Por todo lo expuesto, y analizada la propuesta realizada por el técnico municipal, esta Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades conferidas por el Sr. Alcalde,

## ERABAKI DU

## ACUERDA

**LEHENA.-** Aurrekoa kontuan hartuta, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, aipatutako behin betiko bermea itzultzearen aldeko txostena egiten dut.

**PRIMERO.-** Dado lo anterior y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 111 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, informo favorablemente a la devolución de la garantía definitiva citada.

**BIGARRENA.-** Ebazpen-proposamen hau dagokion kontratazio-organoari bidaltzea, hartutako erabakiaren kalterik gabe, behin betiko bermea itzultzeko erabakia har dezan.

**SEGUNDO.-** Remitir la presente propuesta de resolución al órgano de contratación correspondiente para que, sin perjuicio de su decisión, resuelva la devolución de la citada garantía definitiva.

#### 4. **DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:**

**2025/772 Dekretua: 2025/4 faktura zerrendak.**

2025KFAK0002

### ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzaitetza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.



## KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2025eko honako faktura-zerrenda hau:

4. zenbaki duena, 14.314,10 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

4. zenbaki duena, 14.314,10 eurokoa.

**BIGARRENA.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

*Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:*



*Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsua aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.*

*Bestela, birjarpen errekurtsuaren orde, edo errekurtsuaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsu hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.*

**Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua.**

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**2025/780 Dekretua: 2025/5 faktura zerrendak.**

2025KFAK0002

### ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzailtza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.



## KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2025eko honako faktura-zerrenda hau:

5. zenbaki duena, 288.036,33 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

5. zenbaki duena, 288.036,33 eurokoa..

**BIGARRENA.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

*Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:*

*Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.*





*Bestela, birjarpen errekurtsoren ordez, edo errekurtsoren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsu hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.*

**Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua.**

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 11:05ean.**

ALKATEA

IDAZKARI AKZIDENTALA



TOLOSAKO  
UDALA

2025IGBA0007

### ERANSKINA

			URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA		
LANPOSTUEN BALORAZIOA	LANPOSTUEN BALORAZIOA: OFIZIOZKO BERRIKUSPENA	OHIKO PROZEDURA				29/04/2025	5/6/2025 eta 5/13/2025 eta 05/27/2025	06/03/2025 eta 06/10/2025								
		EZ-OHIKO PROZEDURA														
	LANPOSTUEN BALORAZIOA: INTERESATUEK ESKATUTAKO PROZEDURA	INTERESATUEN ESKAERAK ETA LEHENESTEA						aurkezteko epea: 05/05/2025 etik 05/22/2025	6/17/2025							
		SAILBURUEN ESKAERAK ETA LEHENESTEA														
	ESKAEREN BERRIKUSPENA												9/2/2025 eta 9/16/2025	10/7/2025 eta 10/14/2025	11/4/2025 eta 11/11/2025	12/2/2025



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2025IGBA0007-2025/03/25eko akta/2025/03/25eko akta ()